

Zangoza / 2026

KULTUR AGENDA

MARTXOA



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA
SANGÜESA ZANGOZA KULTUR ETXEA
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia: astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko eta Erakusketa aretoko ordutegia:

asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Urtarrilaren 1ean, 6an eta 20an Kultur Etxea itxita egonen da.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea hemen kontsultatu: www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: otsailaren 3tik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Ikuskizunaren egunean online salmenta jarduera hasi baino bi ordu lehenago amaituko da. **Txartel-leihatila emanaldia hasi baino bost minutu lehenago itxiko da.**

Informazio-telefonoa: 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan: Karmengo Entzunaretoan (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik.

Telefonoa: 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak.

Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da alaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

Beharapenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948 870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzero eman.



- 1** Ig Erakusketa «Mari, lamiak eta basoaren aztarnak» (martxoaren 1era bitarte) 4. Orr.
Ig Zinea. «Elio» 7. Orr.

2 Al

3 As Musika Eskolako Konboen kontzertua 9. Orr.

4 Az Musika Eskolako ikasleen kontzertua 9. Orr.

5 Og Erakusketa «Meninas» (martxoaren 29ra bitarte) 4. Orr.

Og Ana Pagolarekin topaketa («Meninas») 4. Orr.

6 Os

7 La Zangoza eta Ezkarozeiko Musika Eskoletako Koruen eta Brass Band-en kontzertua 9. Orr.

8 Ig Bakarriketa. «Amanezco» 8. Orr.

9 Al

10 As

11 Az

12 Og Ipuin kontalaria. «Kontu kantari» (euskaraz) 7. Orr.

13 Os Historia tailerra. Hitzaldia. «Irulegiko eskua. Arkeologia historia iturri» 10. Orr.

14 La Historia tailerra. Bisita Irulegiko erakusketara 10. Orr.

Historia tailerra. Ttun-ttun dantzatzeko ikasi 10. Orr.

15 Ig Musikala. «Amares, amar los mares» 5. Orr.

16 Al

17 As

18 Az Ipuin kontalaria. «Y entonces llegó la primavera» (gaztelaniaz) 7. Orr.

19 Og

20 Os «La familia sangüesina Desiré» liburuaren aurkezpena 9. Orr.

21 La Musika eta dantza. «El misterioso mundo de los sentidos» 6. Orr.

22 Ig Musika komedia. «Preparadas, listas...¡Ya!» 8. Orr.

23 Al

24 As

25 Az

26 Og Musika Eskolako ikasleen kontzertua 9. Orr.

27 Os «Las voces de la República» liburuaren aurkezpena 9. Orr.

28 Sá Dantza. «La prodigiosa zapatera» 6. Orr.


29 Ig

30 Al

31 As Erakusketa «Ekintza txikiak...» (apirilaren 9ra bitarte) 5. Orr.

Azaleko irudia: «La prodigiosa zapatera».

Erakusketak



«MARI, LAMIAK ETA BASOAREN AZTARNAK». Argazkiak

JAIO LERTXUNDI

MARTXOAREN 1 ERA BITARTE

Erakusketa honek gizakiak naturarekin eta euskal mitologiarekin duen harremana aztertzen du.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultur Etxeko behealdeko erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«MENINAS». Margoak

ANA PAGOLA

MARTXOAREN 5ETIK 29RA

«Meninas» multzo pikturiko honetan Ana Pagolak Margarita infantaren irudia berrinterpretatzen du begirada garaikide batetik. Astronauta, catrina, Isabel punk erregina edo beste pertsonaia ikoniko batzuen bidez, Velazquezen ondarearekin mintzo da lana. Margoek tradizioa eta egungo kultura nahasten dituzte lotsagabekeriarekin, ironiarekin eta teknikaren eta kolorearen arreta zainduarekin. Klasikoari forma eta esanahi berrietatik begiratzeko proposamena.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko
behealdeko erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



ANA PAGOLAREKIN TOPAKETA

OSTEGUNEAN, MARTXOAK 5

Ordua: 19:00.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko
behealdeko erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Erakusketak



«EKINTZA TXIKIAK, ALDAKETA HANDIAK. HERRI TXIKIENAK ERE MUNDUA ALDA DEZAKE»

MARTXOAREN 31TIK APIRILAREN 9RA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) Garapen Lankidetzarako Tokiko Funtsean parte hartzen duten toki entitateen eskura jartzen du dibulgaziozko erakusketa bat, herritarrei Nafarroako udalen konpromiso solidarioa eta 2025ean finantzatutako proiektuak hurbiltzeko aukera ematen diena.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Antolatzailea: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF).

Erakusketa aretoko bisiten ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak Karmengo Entzunaretoan

MUSIKALA

«Amares, amar los mares»

PRODUCCIONES MAESTRAS

IGANDEAN, MARTXOAK 15

Zuzendaria: Ana Maestrojuan. **Interpretatzaileak:** Jaione Urtasun, Xabier Artieda, Angel Garcia Moneo.

Neguko gau ekaiztsu batean Pepa pirata zaharra, «The bottle», aurkitu dugu, bost kontinenteetan zehar egin zituen ibilaldi luzeak gogoratuz. Bere bizitza liburuarekin batera, iraganean «El Ulises» itsasontzian izandako abenturak eta zoritxarrak biziaraziko dizkigu. Peparekin gogoratuko dugu nola iritsi zen Japoniara, nola defendatu zituen animaliak Lagosen, nola bidaiatu zuen Yemayak kulunkaturiko olatuen gainean, nola dantzatu zuen Ozeanian edo nola arras zahartuta zegoela, sorlekuko labar eskoziarretara itzuli zen.


Ikusleak: 4 urtetik gorako haurrak eta familiak.

Iraupena: 55 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €. **Txartel-leihatilan:** 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



Arte eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



MUSIKA ETA DANTZA

«El misterioso mundo de los sentidos»

GOKAN QUARTET

LARUNBATEAN, MARTXOAK 21

Interpretatzaileak: Begoña Martinez (klarinetea), Almudena Ibáñez (klarinetea), Javier Calvo (klarinete baxua) eta Arantxa Villanueva (dantzaria).

Gokan Quartetek atsegin handiz aurkezten du pinturak, dantzak eta musikak bat egiten duten proiektu bat, sinestesiaren magia erakustearren. Kontzertua naturako elementuetan zeharreko bidaia bat da, non entzumena ikusmenara esnatzen den, non kolorea keinu bihurtzen den eta keinua, memoria.

Ikusleak: gazteak eta helduak. **Iraupena:** 60 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 10 €. **Txartel-leihatilan:** 12 €.

Gazte txartela: 8 €. Beharrezkoa izanen da Gazte txartela erakustea, bai entzunaretoan bai interneten erosi bada.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



DANTZA

«La prodigiosa zapatera»

COMPAÑÍA IBÉRICA DE DANZA

LARUNBATEAN, MARTXOAK 28

Zuzendari artistikoa: Manuel Segovia.

Interpretatzaileak: Adrián Gómez, María Gurría, Santiago Herranz, Francisco Linares, Alejandro Mármol, Marta Mármol, Jaime Puente, Alejandra Rodriguez, Raquel Ruiz eta Nuria Tena.

Artearen Komediaren ukituak dituen ballet komikoa, Federico García Lorcaren «La zapatera prodigiosa» jatorrizko obran inspiratua, ikuspegi berritzailearekin. Manuel Segoviak zuzenduta, Dantzako Sari Nazionala, «La prodigiosa zapatera» antzezlanak Lorcaren tragikomedia klasikoa, kode irekiko espainiar dantza eszenikoko ballet komiko bikaina bihurtzen du.

Ikusleak: gazteak eta helduak. **Iraupena:** 60 minutu.

Ordua: 19:30.

Sarrera: 10 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



Zinea



«Elio»

IGANDEAN, MARTXOAK 1

Zuzendariak: M. Sharafian, D. Shi eta A. Molina.

Elioren istorioa kontatzen du. 11 urteko mutikoa, irudimen handia nahiz estralurtarrekiko obsesio ikaragarria duena. Gizartearekin bat egiteko borrokatzen da, harik eta tupustean espaziora eraman eta Lurreko enbaxadore galaktiko gisa identifikatzen duten arte.

Ikusle guztiendako egokia

Iraupena: 98 minutu. **Ordua:** 18:00. **Sarrerak:** 3 €.

Lekua: Karmengo entzunaretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ipuin kontalaria



«Kontu kantari»

(Euskarazko ipuin kontalaria)

INÉS BENGOA

OSTEGUNEAN, MARTXOAK 12

Txikienek ipuinez gozatzen dute zentzu guztiekin, horregatik kontatu, kantatu eta hitzen bidez jolasten gara haiekin. Hitzez, soinu eta abestiz osatutako ipuin saioa da hau, gurasoez lagundutako haurrentzako.



«Y entonces llegó la primavera»

(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)

VENTURA RUIZ

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 18

Eta orduan udaberria iritsi zen petaloak barreiatuz, baina ez zen konturatu petaloen artean izaki txiki eta irribarretsu bat zegoela, negu osoa lo zeramaten animaliak esnatzeko gogoz. Bazetorren eguzkitara eta euritara ateratzeko unea! Zelaiak eta mendiak kolorez margotzeko garaia iritsi zen.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko haurrak. Adingabeek helduekin egon behar dute.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Ordua: 18:30. **Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erabilera antitzeko aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiak



BAKARRIZKETA

«Amanezco»

MARI IZCO (GENUINA)

IGANDEAN, MARTXOAK 8

Genuina pailazoak ikusleekin partekatzen du bere bizipen onkologikoa. Bizi izandako leku, sentipen eta emozioetara itzultzen da, oraingo garaietara era hurbil batean ekartzeko.

Eskuaren umorearekin, leku horietan ibiltzera eraman zuen erabakitze gaitasunera hurbiltzen gaitu. Bere gau iluna igaro ondoren, gaur EGUNA ARGITU DIOLA sentitzen du.

Ikusleak: gazteak eta helduak. **Iraupena:** 70 minutu.

Ordua: 19:00.

Lekua: Karmengo entzunaretoa.

Aldez aurreko sarrerak: 10 €. **Txartel-leihatilan:** 12 €.

Gazte txartela: 8 €. Beharrezkoa izanen da Gazte txartela erakustea, bai entzunaretoan bai interneten erosi bada.



MUSIKA KOMEDIA

«Preparadas, listas... ¡Ya!»

EL TERRAL TEATRO

IGANDEAN, MARTXOAK 22

Zuzendaria: Antonio Guerrero.

Interpretatzaileak: Arantxa Catalá eta Antonio Guerrero.

«Preparadas, listas... ¡Ya!» komedia musikala da, eta emakumea du ardatz, bizitzako hainbat arlotan gizonaren baldintza berberetan parte hartzeko urteetan izan duen borroka, egungo gizartean izan duen papera eta mundu bidezkoago eta berdinzaleago batean pertsona gisa izan duen garapen osoa.

Ikusleak: gazteak eta helduak. **Iraupena:** 60 minutu.

Ordua: 19:00.

Lekua: Karmengo entzunaretoa.

Aldez aurreko sarrerak: 10 €. **Txartel-leihatilan:** 12 €.

Gazte txartela: 8 €. Beharrezkoa izanen da Gazte txartela erakustea, bai entzunaretoan bai interneten erosi bada.



Antolatzailea: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietako zinegotzigoa.

Laguntzaileak: Zangozako Udalaren Kultura zinegotzigoa, Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



Musika Eskolako Konboen kontzertua

ASTEARTEAN, MARTXOAK 3

Ordua: 19:30.



Musika Eskolako ikasleen kontzertua

**ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 4
ETA OSTEGUNEAN, MARTXOAK 26**

Ordua: 19:30.



**Zangoza eta Ezkarozeiko Musika Eskoletako Koruen
eta Brass Band-en kontzertua**

LARUNBATEAN, MARTXOAK 7

Ordua: 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Liburuen aurkezpena



«La familia sangüesina Desiré»


JAVIER LUIS TORRES JUGAND

OSTIRALEAN, MARTXOAK 20

100 argazki baino gehiagoren bidez, batzuk 100 urte baino gehiagokoak, Zangozako familia honen historia kontatzen duen familia-liburua.

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Hitzaldi aretoa.



«Las voces de la República»

JOSEBA ECEOLAZA

OSTIRALEAN, MARTXOAK 27

Nafarroako Errepublikaren aldarrikapenari eta ondorengo errepresio frankistari buruzko testigantza ezezagunak.

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Hitzaldi aretoa.

Beste elkarte kultural batzuen ekitaldiak

HISTORIA TAILERRA

Tailerrak historia tradizionalako datuei, datei, batailei eta heroiei testuingurua eta ikuspegia eman nahi die, interesa duten pertsonen parte-hartze anitzarekin, historialari eta ikertzaileekin batera.

OSTIRALEAN, MARTXOAK 13

HITZALDIA

«Irulegiko eskua. Arkeologia historia iturri»

Hizlaria: Mattin Aiestaran de la Sotilla.

Ordua eta lekua: 19:00etan Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Hitzaldi aretoa.

Prezioa: 5€/pertsonako. Doan bazkideendako.

Argibideak eta izena ematea:

asociacionbaskunsaelkartea@gmail.com.



LARUNBATEAN, MARTXOAK 14

ERAKUSKETARA BISITA

«Irulegitik Pompelora. Hiri baten sustraiak»

Mattin Aiestaran de la Sotillak eginiko bisita gidatua.

Ordua eta lekua: 10:30 etan Civiox Pompelo (Salestarren plaza 7). Iruñea.

Prezioa: 5€/pertsonako. Doan bazkideendako.

Argibideak eta izena ematea:

asociacionbaskunsaelkartea@gmail.com



DANTZA TAILERRA

«Uztarrozeko eta Izabako ttun-ttuna»

Ordua eta Lekua: 18:00etan Rocamador Dantzari Taldearen egoitzan (Azoka karrika z/g).

Prezioa: 5€/pertsonako. Doan bazkideendako.

Argibideak eta izena ematea:

asociacionbaskunsaelkartea@gmail.com

Antolatzailea: Baskunsa Elkartea.

Laguntzaileak: Rocamador Dantzari taldea.

